

Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
C.I.F./ I.F.K. P3132500D
Tel.: 948132222
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa – Navarra
ansoain@ansoain.es
www.ansoain.es

COVID-19REN KRISIAK KALTETUTAKO ANTSOAINGO SALTOKIETAN KONTSUMORAKO BONUAK ESKATZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK-19

ZIOEN AZALPENA

Antsoaingo Udalarentzat lehentasunezkoa da merkataritza- eta zerbitzu-sare hurbil bat izatea, herritarren beharrak asetzeko eta, aldi berean, lanpostu egonkorrak sortzeko.

Hori dela eta, Covid-19ren osasun krisiak eragindako egungo egoera dela eta, non negozio asko jarduera utzi behar izan duten edo diru-sarreretan jaitsiera handiak izan dituzten, Antsoaingo jarduera ekonomikoaren eta komertzialaren interes orokorra indartzeko beharra identifikatu da. Horretarako, erosketa-bonuen kanpaina bat jarri da abian, Covid-19ren krisiak kaltetutako Antsoaingo udalerriko saltokiekin koordinatuta.

Honako lortzen lagundu nahi du:

1. Tokiko ekonomia mota horri likidezia ematen.
2. Eremu horretan kontsumo arduratsu maila bat sortzen, kontsumo arduratsu horrek orekatu ditzan itxizko asteetan galdutakoa edo fakturazio galera nabarmenak.
3. Aste horietarako aurreikusitako kontsumoaren zati handi bat Antsoaingo tokiko saltokietan egitea.

1. OINARRIA.- DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen helburua da Antsoaingo udalerriko tokiko merkataritza suspertzea, dinamizatzea eta sustatzea, eta 2020ko martxoaren 14tik Covid-19k eragindako osasun krisiaren ondoriozko alarma egoerak tokiko merkataritzari eragin dizkion ondorio ekonomiko negatiboak minimizatzea.

2. OINARRIA. AURREKONTU-KREDITUAK ETA DEIALDIAREN ZENBATEKO OSOA.

Dirulaguntza deialdi honek 40.000,00 euroko aurrekontua du, eta, horretarako, Udalbatzarrak aurrekontu-aldaketa bat onartu du, 2020ko aurrekontuko "1 4310 47900 COVID 19 dirulaguntzak" diru-sailari aurrekontu-esleipena emateko. Ezin izanen da deialdi honetan ezarritako zenbatekoa gainditzen duen dirulaguntzarik eman.

3. OINARRIA.- HARTZAILEAK

Antsoainen garatutako merkataritza jardueren titularrek jaso ahal izanen dituzte bonoen bidezko erosketak, baldin eta jarduera udalerrian jendearentzat irekita dagoen lokal jakin batean egiten bada eta haien ondasunak edo zerbitzuak zuzenean Antsoaingo herritarrentzat badira. Betiere alarma-egoera deklaratu zen egunean Antsoaingo Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda egon behar zuten (2020ko martxoaren 14an) eta hurrengo eskakizunak bete:

- a) Lan-arabide autonomoko profesionala edo enpresa izatea, bi kasuetan plantillan 10 pertsona baino gutxiago eta urteko negozio bolumena edo balantzea 2 milioi euro baino gehiagokoa ez denean.
- b) Jarduera 2020ko martxoaren 14a baino lehen hastea datu fiskalen eta gizarte-segurantzako datuen arabera, betiere alta ereduak ez badira geroago atzeraeraginez aurkeztu.
- c) Egoitza fiskala eta merkataritza lokala Antsoaingo udalerrian egotea.
- d) Antsoainen jendearentzat zabalik dagoen lokala duten jarduerak, merkataritza eremuan jarduera



ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dauden ondasunak eta zerbitzuak saltzeko. **Kanpoan geratzen dira establezimendu hauetako jarduerak: apustu aretoak, tabako salmenta, botikak, erregaiak, bankuak eta supermerkatu kateak. Era berean, ostalaritzaren eta jatetxeen sektorea deialdi honetatik kanpo geratzen da, berariazko beste laguntza lerro bat dagoelako.**

f) Antsoaingo Udalarekin, Nafarroako Ogasun Publikoarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen zerga betebeharrak egunean izatea.

Kanpoan geratzen dira administrazio publikoak, enpresa publikoak eta beste erakunde publiko batzuk, bai eta elkarteak, fundazioak eta, oro har, irabazi asmorik gabeko erakundeak ere, bai eta lan-arabide autonomoan dauden pertsonak ere, honako egoera hauetakoren batean badaude:

a) 2020ko martxoaren 14an langabezia prestazioa edo jarduera uzteagatik babesa jasotzen bazuten, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 327. artikuluan eta hurrengoetan arautua.

b) 2020ko martxoaren 14an edo geroago, besteren kontura lanean ari baziren.

4. OINARRIA. MERKATARITZARAKO BONU KANPAINAREN FUNTZIONAMENDUA.

4.1. Kanpaina honetan parte hartu nahi duten saltokiek deialdi honen 5. oinarrian ezartzen den bezala aurkeztu beharko dute eskabidea. Dokumentazioa aztertu ondoren, Udalak kanpaina saltoki hori onartu edo ukatu duen jakinaraziko du. Udalak behar bezala iragarriko du kanpainari atxikitako saltokien izena, herritarrek jakinaren gainean egon daitezen; era berean, establezimendu bakoitzak bereizgarri bat izanen du, haien parte-hartzea identifikatzeko.


4.2. Bonuak **5 eurokoak** izanen dira, eta kanpainari atxikitako dendetan erabili ahal izanen dira, 15 euro edo gehiagoko erosketetan.

4.3. Bonuak gaur egun Antsoainen erroldatuta dauden adin nagusiko pertsonak erabili ahal izanen dituzte; pertsona horiek 2020ko abenduaren 1a baino lehen bete beharko dute adin nagusitasuna. Pertsona bakoitzeko bonu bakarra erabili ahal izanen da, pertsonalak eta besterenezinak izanen dira eta NANari lotuak. Bonuak erabiltzeko nahikoa izanen da NANA kanpainari atxikitako establezimenduan aurkeztea.

4.4. Bonuak 2020ko abenduaren 1etik 20ra bitartean kontsumitu beharko dira.

4.5. Pertsona batek bonu bat trukatu nahi duenean, establezimenduak egiaztatuko du pertsona horren NANA horretarako eskuragarri dagoen datu basean dagoela. Ondoren, establezimenduak bonoa baliozkotuko du deskontua egiteko gaitutako webgunean, bezeroak aldea ordainduko du eta bonoa trukatu gisa erregistratuko da, eta sisteman gordeko da informazio guztia, NAN berarekin beste erosketa bat egitea eragotziz. Establezimenduak tikearen kopia bat gorde beharko du, inprimatuta edo formatu digitalean, eta Udalean aurkezteko egiaztatagiri gisa erabiliko da.

4.6. Abenduaren 21etik 23ra bitartean, kanpainara atxikitako dendek emandako tikieta kopia bat bidali beharko dute Udalera, paper inprimatuan edo argazki bidez. Udalak saltoki bakoitzari ordainduko dio izapidetutako bonuen zenbatekoa, baldin eta behar bezala trukatuta eta justifikatuta badaude.



Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
C.I.F./ I.F.K. P3132500D
Tel.: 948132222
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa – Navarra
ansoain@ansoain.es
www.ansoain.es

5. OINARRIA. ESKABIDEAK AURKEZTEA, EPEA ETA EBAZPENA.

5.1. Kanpainarekin bat egin nahi duten establezimenduek **2020ko azaroaren 16ko 14:00ak arte** izanen dute, eskabidea Antsoaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkezteko.

5.2. Aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsak edo omisioak dituzten eskabideek 5 eguneko epea izanen dute, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, zuzentzeko, eta ohartaraziko zaie ez aurkeztea edo zuzentzea eskaeran atzera egitea dela, eta artxibatu egingo dela beste izapiderik gabe.

5.3. Aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Antsoaingo Udalarari zuzendutako eskabidea. (1. eranskina).
- b) Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzian zerga-betebeharrak egunean izatea egiaztatzen duen ziurtagiria.
- c) Antsoaingo Udalak edozein argibide- edo egiaztapen-agiri eskatu ahal izanen dio eskatzaileari, espedientea ebazteko.

5.4. Gehienez ere 5 eguneko epean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabakia hartu eta onarpenaren berri emanen die parte hartzen duten establezimenduei.

5.5. Abenduaren 24tik 31ra bitartean, saltokiek aurkeztutako dokumentazioarekin (trukatutako bonuen zerrenda eta tiketaren kopia), Tokiko Gobernu Batzordeak establezimendu bakoitzari likidatu beharreko zenbatekoak ebaztiko ditu eta dagokion ordainketa egingen du.

6. OINARRIA. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

Deialdi honen, deialdiaren oinarrien eta horiek betearazteko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka, honako errekurtsu hauek aurkeztu ahal izanen dira, nahi izanez gero:

- Berraztertze errekurtsua administrazio-egintza eman duen udal organoari, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, hala badagokio, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- Gora jotzeko errekurtsua Nafarroako Administrazio Auzitegian, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hilabeteko epean.
- Administrazioarekiko auzi errekurtsua, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe hori zenbatuko da errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Antsoainen, 2020ko urriaren 15ean.
Alkatea, Ander Andoni oroz Casimiro.